



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LAB sindikatuak grebarekin eta borrokarekin jarraitzeko apustua egiten du, Tubacex-eko lanpostuak bermatzeko bide bakarra baita

Otsailaren 15ean, Tubacexeko langileok greba mugagabea hasi genuen gure lanpostuak eta lan-baldintzak defendatzeko. Ez geunden prest koiunturaltzat jotzen genuen arazo baten aurrean egiturazko neurriak onartzeko, ez geunden prest Tubacexen diru-gose enpresarialak gure familien eta Aiaraldeko eskualdearen etorkizunarekin jolasteko.

Gaur 159 egun bete ditugu greban, 159 egun borrokan. Borroka horretan, Aiaraldeko eskualde osoa izan dugu bidelagun, eskualdearentzako etorkizun duinaren alde. Borroka horretan, Euskal Herriko langileria ere izan dugu bidelagun; borroka horretan, aliantzak sortu ditugu gatazkan dauden beste enpresa batzuekin, eta borroka horrek Euskal Herriko mugak gainditu ditu. Hemendik mila esker bihotz bihotzez, bide hau gurekin batera egiten ari den guztiari. Indibidualismoaren gaineko borrokan klase-kontzientziak irabazi du.

Borroka honek guztiak uztailaren 7a arte ekarri gintuen. Egun horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak baliogabetzat jo zituen 129 langileren kaleratzeak. Epaiak hasieratik esan genuena babesten du: ez dago 129 langile kaleratzeko egiturazko kausarik, ez dago Tubacexeko langile bakar bat ere kaleratzeko egiturazko kausarik. Epaian jasotzen denez, Tubacexen zuzendaritza fikzioan oinarritzen da kaleratzeak justifikatzeko eta 9/2020 Errege Dekretua ez betetzeko; izan ere, 2. artikuluan dio kaleratzeak ez direla justifikatuko ezinbesteko arrazoiengatik, ezta arrazoi teknikoak, produktiboak, ekonomikoak edo antolakuntzakoak COVID-19rekin lotuta daudenean ere. Epaiak kaleratutako guztiak berriro onartzera behartzen du enpresa.

Tubacexeko zuzendaritzak, langileen konfiantzarik ez duen zuzendaritzak, apetzako zuzendaritza, negoziatu nahi ez eta soilik inposatu nahi duen zuzendaritza autoritarioak, epaia ez betetzea erabaki du. Etxean daudela kaleratuei soldata ordaintzea erabaki du, baina ez die lanpostua itzuli langile horiei. Erabaki horrek erakusten du Tubacexek aurrera jarraitzen duela langileak kaleratzeko ahaleginean, Madrilgo Auzitegi Gorenera epaia errekurritzeko iragarpenak erakusten duen bezala, eta estrategia horren ondorio da lankideak beren lanpostuetara ez itzultzeko erabakia. Errekurtso edo helegite horrek kaleratutako langile guztien eta haien familien etorkizuna arriskuan jartzen jarraitzen du, eta Aiaraldearen etorkizuna arriskuan jartzen jarraitzen du.

Gaur hemen ere salatu nahi dugu Tubacexek ezin izango lukeela horrelako erabakirik hartu Eusko Jaurlaritzaren bermea eta konplizitatea ez balitu. Epaiaren ostean, Tubacexeko langileok adierazpen oso mingarriak entzun behar izan ditugu Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Zuzendaritzaren tesia bermatzen duten adierazpenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaiak dioenaren aurka doazenak. Eusko Jaurlaritzak esan digu grebak ez duela inolako onurarik eta negoziatu egin behar dela.



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LABetik Tapia sailburuari eta Urkullu lehendakariari galdetu nahi diogu: zer ari zarete esaten negoziatu behar dugula? Gure lankideen kaleratzeak? Tubacexek argi utzi du ez dituela kaleratzeak erretiratzen. Hori al da Eusko Jaurlaritzak kaleratzen dituzten enpresei eskaintzen dien aukera? Kaleratze horiek negoziatzea ala Ertzaintza protesta legitimoak zapaltzera eta kriminalizatzea bidaltzea? Eusko Jaurlaritzak Madrilgo Auzitegi baten esku utziko al du 129 familiaren etorkizuna?

LABetik badakigu, esperientziagatik, Madrilen hartutako erabakiek ez diotela mesederik egiten euskal langileriari, eta horren erakusgarri da enpresei Tubacexen moduko jokabideak egitea ahalbidetzen dien lan-erreforma. Eusko Jaurlaritza, bere konplizitatearekin, bizkarra ematen ari zaie Tubacexeko langile guztiei, Aiaraldeko eskualde osoari eta Euskal Herriko langile-klaseari, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari berari ere, bere epaian esaten duena alde batera utziz.

Era berean, ez da harritzekoa, Tubacexen kontseilari moduan, besteak beste, Jose Antonio Ardanza eta Nuria Lopez de Guereñu ibili direla kontuan hartuta, Jaurlaritzako lehena lehendakari ohia eta bigarrena Garraio Sailburua lakuan. LABetik, Eusko Jaurlaritzari eta, zehazki, Arantza Tapia sailburuari eta Urkullu lehendakariari exijitzen diegu langileen alde jar daitezela eta Tubacexen lanpostu guztiak bermatzea, eta hau zuzendaritzari EAEko Auzitegi Nagusiaren epaia betetzeko eta Madrilgo Auzitegi Gorenari helegitea kentzeko exijituz egiten da.

Horregatik guztiagatik, eta gure helburuak lortzeko, LABetik borrokan eta greban berresten gara. Borroka eta greba dira gure lanpostuak eta lan-baldintzak defendatzeko eta bermatzeko uzten diguten bide bakarra. Enpresak bere pretentsioekin jarraituz erabakitzen du gatazka luzatzea, ez langileek. LABen ez ditugu atzean utziko zuzendaritza zikoitz eta autoritario batek kaleratze-zerrenda batean sartu zituen pertsonak.

Tubacexeko langileok goizeko 5:00etan jaiki gara, gure laneko arropa jantzi dugu eta gogor lan egin dugu, lankide batzuek bizitza ere galdu dute beren lanpostuetan, eta hori Tubacexek urteetan zehar milioi askoko irabaziak pilatu dituen bitartean. Orain, aberastasuna pilatzen jarraitu nahi du, langileak kaleratzearen, lan-baldintzak okertzearen eta eskualde baten etorkizunarekin jolastearen kontura. LABetik argi daukagu: ez dugu onartuko, borrokan jarraituko dugu guztiok lanean hasi arte eta zuzendaritza hau kargutik kentzea lortu arte.

Beraz, LAB sindikatuak honako hau eskatzen du:

- Enpresari, kaleratutako pertsonak beren lanpostuetara berehala itzultzea eta Madrilgo Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsioa erretiratzea.
- Eusko Jaurlaritzari, Urkullu lehendakaria buru dela, langile guztien lan eskubideak bermatzea eskatzen diogu, eta ez greba ez egitea erabakitzen duten langileena bakarrik.



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Hori dela eta, Tubacexi publikoki exijitu behar dio kaleratuak bere lanpostuetara berehala itzultzea eta Madrilgo Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtoa bertan behera uztea.

Helburu horiek lortu arte, LABek egiten ari garen grebarekin eta borrokarekin jarraitzearen alde egiten du argi eta garbi, eta borrokan lagundu diguten guztiei dei egiten diegu borrokan jarrai dezaten.

Bilbon, 2021eko uztailaren 12an